

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz emango den bajaren jakinarazpena

Honen bidez, Fernando Cobos Martínez jaunari jakinarazten zaio ezen alkatearen 2016ko abuztuaren 09ko Dekretuaren bidez hasiera eman zaiola udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emateko espedienteari.

Ikusirik A. M. U.k 2016ko abuztuaren 03an Beotegiko Elexalde auzoko 6. zenbakian dagoen etxebizitzaren jabe gisa aurkeztutako idazkia, adieraziz ezen Fernando Cobos Martínez bidegabeki dagoela inskribatuta biztanleen udal erroldan, ez delako egiaz bizi bizitoki horretan, eta hartara Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Erregelamenduaren 54. eta 68. artikulua urratzen dituela.

Kontuan hartuz erregelamendu horren 75. artikuluan xedatutakoa, eta orobat 1997ko apirilaren 1eko ebazpena, zeinaren bidez jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udalei biztanleen udal errolda kudeatu eta berrikusteari buruz, eta, zehazki, bidegabeki inskribatuta egoteagatik baja emateari buruz, eta kontuan hartuz, horrez gain, aplikatzekoa den gainerako legedi orokorra.

Alkate lehendakari honek

ebazten du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetu dadin onartzea eta ofizioz irekitzea espedientea Fernando Cobos Martínez jaunari, Aiarako udal erroldan bidegabeki inskribatuta egoteagatik ustez.

Bigarrena. Udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean jakinaraztea interesdunari ebazpen hau, hamabost egun igaro baino lehen egoki deritzen alegazioak, agiriak eta frogak aurkez ditzan, udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela egiaztatzeko, edo errolda egoera erregularizatzeko, eta horretarako, etxebizitzaz aldatu dela edo egun duen etxebizitza eta zein udalerritan bizi den jakinarazi beharko dio udal honi.

Arespalditza, 2016ko ekainaren 19a

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA